

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

6945 6/2021 Legea, apirilaren 28koa, Erregistro Zibilaren uztailaren 21eko 20/2011 Legea aldatzen duena.

FELIPE VI.a

ESPAINIAKO ERREGEA

Honako hau ikusten eta ulertzen duten guztiei.

Jakizue: Gorte Nagusiek honako lege hau onetsi dutela eta nik berretsi egiten dudala.

HITZAURREA

Aurten, 2021ean, 150 urte betetzen dira Erregistro Zibila sortu eta Espainia osoan ezarri zenetik; izan ere, 1870eko abenduaren 13ko Dekretuak xedatu zuen Erregistro Zibilaren Behin Behineko Legea eta haren erregelamendua –aipatutako dekretuak onetsia– 1871ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko zirela.

Erregistro Zibilaren uztailaren 21eko 20/2011 Legearen bidez, Erregistro Zibilaren eredu berri bat ezarri zen Espainian: Estatu osorako eredu bakarra, informatizatua eta sarbide elektronikoa duena. Erregistro hori Estatuaren botere judiziala osatzen duten funtzionario publikoek ez beste batzuek eramango dute. Egiturari dagokionez, bulego zentral bat, bulego orokorrak eta bulego kontsularrak izango ditu, eta, beraz, Erregistro Zibilaren egungo antolaketa berregituratu egin behar da Estatuko lurralde osoan. Horrez gain, gaur egun bake-epaitegietan dauden udal-erregistro zibil delegatuen teknologia eta prozedurak modernizatzearen ondorioz, bulego laguntzaileak eratuko dira, eta horiek ere beren eginkizunak izango dituzte. Horiek horrela, Erregistro Zibilaren eredu berria Estatuko lurralde osora hedatu behar da, erregistroaren egungo antolaketa abiapuntutzat hartuta.

Legea konplexua denez eta Erregistro Zibilaren eredu zeharo aldatu denez, denbora-tarte bat behar izan da, eredu berria teknologiararen, egituraren eta antolaketaren ikuspegitik ezartzeko; izan ere, bitarteko digitalak eta materialak eskura jarri behar dira, lanpostuak bete behar dira eta langileei prestakuntza eman behar zaie. Ikuspegi teknologikotik, *vacatio legis* delako denbora-tarte zabal horrek, funtsean, eredu berrira egokitutako plataforma digitala behar bezala garatzeko aukera eman du. Plataforma hori erabiliz, Erregistroarako sarbidea behar duten pertsona guztien egoera zibilar buruzko egitateak inskribatuko dira, formatu digitaleko erregistro-informazioa argitaratzeko modua antolatuko da eta herritarrei elektronikoki identifikatuz erregistroara telematikoki sartzeko aukera emango zaie. Azaldutako guztia bideratzeko, Erregistro Zibil ohian jasotako informazioa erabili da. Informazio gehiena digitalizatuta dago, baina datuek beste egitura bat dute, eta, beraz, kontu handiz aztertu behar izan dira, erregistroko informazioa tratatzean eta egitura berria ezartzean arazorik ez egoteko.

Legea argitaratu zenetik igaro den denboran, ikuspegi bat baino gehiago izan da Erregistro Zibilaren ereduaren inguruan. 2015eko apirilean, Justizia Ministerioak Erregistro Zibilaren erreforma berrikustea erabaki zuen, ukitutako pertsonen, langileen, sindikatuen eta alderdi politikoen adostasuna lortzeko. Hartara, berretsi egin zen Erregistro Zibilaren kudeaketa hobetzeko borondatea zegoela, zerbitzu publiko kalitatezkoa, doakoa eta herritarrekiko hurbila erdiesteko.

Aldaketa hori beharrezkoa da gaur egun, hain zuzen ere, legearen alderdi batzuk berriro definitu behar direlako, lehenengo eta behin, Erregistro Zibilak doako zerbitzu publikoa izaten jarrai dezan. Gainera, erreformaren bidez, helburu hauek bete nahi dira: herritar guztiek erregistroarako irispidea dutela bermatzea, Estatuko lurralde osoan banatutako bulegoen sare bat ezarrita (zerbitzu elektronikoak dituen sare bat); erregistro-

zerbitzuaren erabiltzaileei behar bezalako gertutasuna eskaintzea; erregistroa eramango duten enplegatu publikoen eskarmentua baliatuta Erregistro Zibilaren eredu berria indarrean jarri behar den egunerako prest edukitzea; eta, bereziki, erregistroko enplegatuen eskubideak eta aukera profesionalak zorrotz errespetatzea, erregistro berria ezarri bitartean eta hura abian jarri ondoren.

Beraz, Erregistro Zibilaren eredu berriak zenbait printzipio errespetatu behar ditu: pertsonen bideratuta egon behar du, publikoa eta doakoa izan behar du, eta enplegatu publikoek kudeatu behar dute. Bide judizialek kanpo egon behar du, baina, antolaketari dagokionez, Justizia Administrazioaren barruan txertatuta egon behar du. Eredu berriaren xedapenek behar adinako malgutasuna emango dute, ikuspegi posibilista batetik Erregistro Zibil berria ezartzeko bidea izan dadin. Eredu berriari esker, Erregistro Zibila lurralde guztietatik irisgarria izatea bermatuko da, eta eutsi egingo zaie gaur egun zerbitzua ematen duten lanpostuei. Horrez gain, eredu berriaren bidez, Erregistro Zibilean diharduten langileek arian-arian Erregistro Zibileko eginkizun esklusiboak betetzea lortu nahi da.

Berritasunen artean, nabarmentzekoa da Justizia Administrazioaren letradura arduradun izatearen aldeko apustu argia; izan ere, goi-mailako kidego juridiko horrek eskarmentu handia du aipatutako arloan. Halaber, erreformak zehatzago adierazten du zein den zerbitzu publikoan diharduten administrazio publikoen arteko lankidetzaren esparrua, hartara autonomia-erkidegoek parte har dezaten zerbitzuaren prestazioa diseinatzen, zerbitzua emateko bitartekoak zehazten eta zerbitzua bera gauzatzen, esleituta dituzten eskumenera arabera eta kobernantez-estrategiaren barruan.

Era berean, xedapen batzuetan zenbait hobekuntza tekniko egitea komeni da, dela denboraren poderioz edo aurreko beste erreforma batzuen ondorioz ez datozelako bat egungo errealitatearekin, dela aplikazio informatikoa garatzearen ondorioz sortu delako haien premia. Hartara, ikusi da proposatzen den erregistro-erakundearen oinarria kode pertsonala esleitzea dela; kode pertsonala, hain zuzen ere, pertsona bakoitzari esleitzen zaion zenbaki aldaezina izango da. Hasierako erregulazioa ez zen oso argia izan kontu horri dagokionez, eta, haren arabera, bazirudien pertsonen, jaiotakoan, nortasun-agiri nazionalaren zenbakia esleitzeko zitzaiela, zuzenean, eta zenbaki pertsonal hori ez zela aldatuko. Aitzitik, ikusi da sistema hori ez dela egokia. Izan ere, maiz, atzerriko nazionalitatea duten pertsonen buruzko inskripzioak egin behar izaten dira Erregistro Zibilean –jaiotakoan edo gerora (ezkondutakoan, hildakoan eta abar)–, eta pertsona horiei ezin zaie NAN zenbakia esleitu, ez dutelako halakorik. Beraz, kode pertsonala esleitzean, errealitatean izan daitezkeen kasu guztiak hartu behar dira kontuan. Horregatik, aurrekusi da kode pertsonala, Barne Ministerioaren laguntzaz sortua, Erregistro Zibilaren sistema informatikoaren bidez esleitzea. Espainiako nazionalitatea dutenei, NAN zenbakia esleitzeko zaie, eta, halakorik ez dutenei, beste edozein identifikazio-agiri ofizialarena; esleitutako kodea ez da biziartean aldatuko.

Halaber, Erregistro Zibilean ibiltzeko sinadura elektronikoa aldatu beharra ikusi da. Alde batetik, aintzat hartu behar da arduradunek eta gainerako funtzionarioek autentifikazio-ziurtagiria behar dutela sistema informatikora modu seguruan sartu ahal izateko. Bestalde, ziurtagiri horrek bi motatako sinadura elektronikoak bilduko ditu: batetik, idazpenak egiteko erabiliko den sinadura, hau da, idazpena sinatzen duen arduradunarena; eta, bestetik, ziurtagiriak egiteko baliatuko dena. Azken sinadura hori automatizatu egin ahalko da baldin eta eskatzailea alde aurretik digitalki identifikatu bada, eta, beraz, sistemaren zigilu kualifikatuaren bidez egiaztatuta beharko da. Era berean, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezartzen duen sistemaren aldaketaren berri eman behar du Legearen testuak. Gainera, baldintza edo kontu tekniko batzuk eguneratu behar dira, denborarekin zaharkituta geratu dira eta.

Erreforma honek beste ondorio garrantzitsu bat dakar: abizenak aldatzeko prozedurak azkartzea, are identitatea aldatzeko prozedurak ere, indarkeria matxistaren kasuetan. Izan ere, erreformaren ondorioz, mota horretako prozesuak 54. artikuluan sartu dira, hau da, Erregistro Zibilaren arduradunak berak ebazten dituen prozesuak arautzen dituen artikuluan.

Legea indarrean jartzeko epea behin eta berriro atzeratu da. Hasieran, ezarri zen *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hiru urtera jarriko zela indarrean, hau da, 2014ko uztailaren 22an, baina, gerora, epe luzeagoa behar izan da, denbora honetan izandako gorabeheren eraginez. Oraingo asmoa da aurreikusitako azken datan jartzea indarrean, hau da, 2021eko apirilaren 30ean, gehiago atzeratu gabe. Izan ere, Erregistro Zibila erakunde garrantzitsua da Estatu osoarentzat, eta, era modernoago eta efizienteagoan antolatuz gero, oso erabilgarria izango da herritar guztientzat, eta zerbitzu publiko hobea ematea ekarriko du; beraz, justifikatuta dago hura ezartzeko egingo den ahalegin antolaketazko, teknologiko eta ekonomiko handia.

Horretarako, baina, prozesua behar bezala arrazionalizatu beharra dago. Erregistro Zibilaren bulego berri guztiak aldi berean abian jartzea ez litzateke batere efizientea izango, eta, beraz, antolatzeko era hori desegokia da, baliabide publiko eskasei eta administrazio publikoen funtzionamenduari buruzko printzipioei erreparatuta (batik bat, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 3. artikuluan aipatzen diren printzipioetako batzuk aintzat hartuta; hain zuzen ere, administrazio-prozedurak eta kudeaketa-jarduera materialak arrazionalizatu eta bizkortzearen printzipioa; kudeaketa publikoagatiko erantzukizuna; helburuen araberako plangintza eta zuzendaritza, politika publikoen kudeaketaren kontrola eta politika publikoen emaitzen ebaluazioa; ezarritako helburuak efikaziaz betetzearen printzipioa; ekonomia; baliabideak helburu instituzionaletara zorrotz egokitzearen printzipioa, eta baliabide publikoak efizientziaz esleitu eta erabiltzearen printzipioa). Ezinbestekoa da bulego berriak ezartzeko prozesu koherente bat diseinatzea, erabili beharreko bitartekoetan ahalik eta gehien aurrezteko eta bitartekoak ahalik eta errentagarrien bihurtzeko.

Horri guztiari bidea emateko, erreforma honen bidez, eredu berria ezarri nahi da, arian-arian, laugarren, zortzigarren eta hamargarren xedapen iragankorretan eta bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa kontuan hartuta. Hiru egoera izango dira: eraldaketaren aurreko egoera izango da abiapuntua; ondoren, sistema informatikoa ezarriko da, 20/2011 Legea aplikatuta; eta, azkenik, bulego bakoitzean edo bulego multzo bakoitzean lanpostuen zerrenda onartuko da, hartara eraldaketa gauzatuz.

Adierazitakoa gauzatuko bada, Erregistro Zibila eraldatzea helburu duen aurrera begirako proiektuarekin bat etorri beharko dute bai politikariek eta bai gizarteak, horrek ekarriko baitu eredu-aldaketa. 20/2011 Legearen alderdi batzuk partzialki aldatu dira, hain zuzen ere, legearen izaera aldatu gabe hura aurreikusita dagoen Erregistro Zibilaren behin betiko eredura egokitzeko, erregistro-eredu berria ezarri ahal izateko. Hori dela eta, justifikatuta dago azaldutako aldaketa egitea, Legearen alderdi batzuk birdefinitzeko, hura promulgatu zenean ezarri ziren ardatz nagusiak –aurretik aipatu ditugu– hautsi gabe.

Artikulu bakarra. *Erregistro Zibilaren uztailaren 21eko 20/2011 Legea aldatzea.*

Aldatu egin dira Erregistro Zibilaren uztailaren 21eko 20/2011 Legearen manuak –jarraian datoz–, eta honela geratzen dira idatzita:

Bat. Honela geratzen da idatzita 6. artikulua:

«6. artikulua. *Kode pertsonala.*

Egiten den lehenengo idazpenarekin irekitzen den erregistro indibidual bakoitzari kode pertsonal bat esleituko zaio».

Bi. Honela geratzen da idatzita 7. artikulua:

«7. artikulua. *Sinadura elektronikoa.*

1. Erregistro Zibileko arduradunek ziurtagiri elektronikoen kualifikatuak edukiko dituzte. Ziurtagiri elektronikoen horiek erabiliko dira Erregistro Zibileko idazpenak sinadura elektronikoen aurreratuen bidez izenpetzeko. Inskripzio elektronikoen ziurtagiriak eta bitarteko elektronikoen bidez egiten diren ziurtagiriak sistemak

zigilatuko ditu zuzenean, zigilu elektronikoko kualifikatuko ziurtagiri batean oinarritutako zigilu elektronikoko aurreratuen bidez. Hala egiterik ez dagoenean, arduradunak sinatuko ditu, sinadura elektronikoko aurreratuen bidez; horretarako, ziurtagiri elektronikoko kualifikatua erabiliko du.

Era berean, erregelamenduak zehazten dituen Erregistro Zibileko langileek sinadura elektronikoko aurreratua duen ziurtagiri elektronikoko kualifikatua eduki ahalko dute.

2. Idazpen horien sinadura eta zigilu elektronikoen egiaztagarritasuna bermatuko da, are idazpena egiteko erabili zen ziurtagiria iraungitakoan edo errebokatutakoan ere. Horretarako, sinadura eta zigilu elektronikoei indarrean dagoen legeriak exijitutako denboraz iraungo dutela zaintzen duten formatuak edo zerbitzuak baliatuko dira.

3. Erregistro Zibilean elektronikoki identifikatu nahi dutenek Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 9. artikuluan eta identifikazioari eta sinadura elektronikokoari buruz indarrean dagoen araudian aurreikusten diren sistemetakako edozein baliatu ahalko dute horretarako».

Hiru. Honela geratzen da idatzita 10. artikulua 2. apartatua:

«2. Erregistro Zibilean jasota dagoen informazioa lege honetan aurreikusita dauden publizitaterako bideak erabiliz eskuratzeko eskaera egin ahalko dute herritarrek, Erregistro Zibilaren edozein bulegotan, edo, bestela, bitarteko elektronikoz».

Lau. Honela geratzen da idatzita 20. artikulua:

«20. artikulua. *Erregistro Zibilaren egitura.*

1. Erregistro Zibila Justizia Ministerioaren mende dago, eta bulego hauek ditu:

- 1.a Bulego Zentrala.
- 2.a Bulego orokorrak.
- 3.a Bulego kontsularrak.

2. Inskripzioak eta gainerako erregistro-idazpenak Erregistro Zibilaren bulegoetako arduradunek egingo dituzte.

Arduradunak Erregistro Zibilaren bulegoko langileei eskuordetu ahalko dizkie dituen eginkizunetako batzuk, bere erantzukizunpean eta erregelamendu bidez zehaztutako baldintzak eta mugak aintzat hartuta.

3. Herritarrek Erregistro Zibilaren edozein bulegotan aurkez ditzakete eskaera eta behar den dokumentazioa, edo, bestela, elektronikoki bidal dezakete. Halaber, bulego laguntzaileetan aurkez ditzakete Erregistro Zibilaren aurrean egin beharreko jarduketak egiteko eskaera eta behar den dokumentazioa».

Bost. Honela geratzen da idatzita 21. artikulua 2. apartatua:

«2. Erregistro Zibilaren Bulego Zentralak eginkizun hauek ditu:

1. Erregistro Zibilean inskribatzeko modukoak diren egitateei eta egintzei buruz Erregistroen eta Notaritzaren Zuzendaritza Nagusiak emandako ebazpenen ondoriozko inskripzioak egitea.

2. Atzerriko agiri kauto judizialen zein estrajudizialen inskripzioak egitea, baita atzerriko erregistroetan egindako idazpenen ziurtagirienak ere, non eta horien gaineko eskumena ez duten Erregistro Zibilaren bulego kontsularrak.

3. Indar armatuetan edo Segurtasun Indar eta Kidegoetan diharduten eta atzerriko nazionalitatea duten pertsonen heriotzak inskribatzea, baldin eta Espainiatik kanpoko misio batean edo operazio batean hil badira eta egitatea jazo zen estatuko erregistro-sistemak ez badu heriotza inskribatzen. Azaldutakoa

gorabehera, inskripzioaren berri eman beharko zaio hildakoak nazionalitatea duen estatuko erregistroari.

4. Halaber, legeek esleitzen dizkioten bestelako eginkizunak beteko ditu».

Sei. Honela geratzen da idatzita 22. artikulua:

«22. artikulua. *Erregistro Zibilaren bulego orokorrak.*

1. Barruti judizial baten hiriburuaren egoitza diren udalerrri guztietan, Erregistro Zibilaren bulego orokor bat egongo da.

2. Erregistro Zibilaren bulego orokor bakoitzak Erregistro Zibileko arduradun bat izango du buru, eta hark funtzionalki Segurtasun Juridikoaren eta Fede Publikoaren Zuzendaritza Nagusiaren mende izanik beteko ditu bere zereginak. Zerbitzuak horren beharra badu, arduradun bat baino gehiago izendatu ahalko da bulego berean. Hala eginez gero, lanpostuen zerrendan adieraziko da arduradun lanpostuetako bat arduradun koordinatzaile lanpostua izango dela; lanpostuaren eginkizunak ez dira aldatuko, baina koordinatzailea barne-antolaketaz arduratuko da, eta Segurtasun Juridikoaren eta Fede Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak onartzen dituen jarraibideen eta protokoloen arabera banatuko ditu zereginak.

3. Erregistro Zibilaren bulego orokorrek eginkizun hauek dituzte:

a) Ezagutza- eta borondate-deklarazioak jasotzea eta dokumentatzea, beren eskumenekoak diren gaietan, eta ziurtagiriak egitea.

b) Eskabideak eta inprimakiak jasotzea, elektronikoki edo aurrez aurre, baita Erregistro Zibilean idazpenak egiteko titulu gisa erabil daitezkeen bestelako dokumentuak ere.

c) Erregistro Zibileko espedienteak izapidetzea eta ebaztea, ordenamendu juridikoak eginkizun hori esleitzen dien kasuetan.

d) Beren eskumeneko inskripzioak eta gainerako idazpenak egitea.

e) Erregistro-idazpenen ziurtagiriak egitea.

f) Segurtasun Juridikoaren eta Fede Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak esleitzen dizkien bestelako eginkizun batzuk».

Zazpi. Aldatu egiten da 27. artikulua 4. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«4. Erregistro Zibilaren bulegoetan eta bulego laguntzaileetan aurkeztutako dokumentuak gai honi buruzko araudiak administrazio publikoentzat ezarritako moduan zainduko eta kontserbatuko dira».

Zortzi. Aldatu egiten da 34. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«34. artikulua. *Ebazpen judizialen idazpenak.*

Organo judizial batek emandako ebazpen batek pertsonen egoera zibilari eragiten badio eta, horrenbestez, Erregistro Zibilean haren idazpena egin behar bada, aipatutako organoaren Justizia Administrazioako letraduak ebazpen judizial horren lekukotza edo kopia elektronikoa bidali beharko dio, elektronikoki, Erregistro Zibilaren bulegoari.

Bederatzi. Aldatu egiten da 53. artikulua 4. zenbakia, eta honela geratzen da idatzita:

«4. Interesdunaren abizenak haren jatorrizko eremuko edo bizilekuko hizkuntza ofizialen arau ortografikoetara ekartzea, edo atzerriko abizenen fonetika hizkuntza horien grafiara egokitzea».

Hamar. Aldatu egiten da 54. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«54. artikulua. *Abizenak edo identitatea espediente bidez aldatzea.*

1. Erregistroaren arduradunak abizenak aldatzeko baimena eman dezake; horretarako, aurretik, espediente bat bideratu beharko du, erregelamenduaren arabera.

2. Abizenak aldatzeko eskaerak baldintza hauek bete behar ditu:

a) Interesdunak bere abizena proposatutako moduan idatzita erabiltzea eskuarki, eta, beraz, egitezko egoeran egotea abizenaren idazkera hori.

b) Batu edo aldatu nahi den abizena edo abizenak modu legitimoan eskatzailearenak izatea.

c) Aldaketaren ondorioz eratzen diren abizenak ez izatea lerro berekoak.

Ezarritako baldintzak ez betetzea izango da eskaeraren aurka egiteko oinarri bakarra.

3. Eskatutako abizenak interesduna harreran hartuta duten pertsonenak badira, nahikoa izango da proposatutako abizena eskuarki erabiltzeko betekizuna konplitzea, 2. apartatuko b) eta c) baldintzak bete gabe utzita, baldin eta harrera-egileak edo –harrera-egilea hila bada– haren jaraunsleek aldaketa onartzen badute. Edozein kasutan ere, nahitaezkoa da abizenaren titularraren ezkontideak eta ondorengoen aldaketari baiezkota ematea, beren kabuz edo legezko ordezkarien bidez.

4. Duintasunaren aurkakoak diren edo eragozpen handiak dakartzaten abizenak aldatzeko, ez da beharrezkoa izango proposatutako abizena eskuarki erabiltzea; nahikoa izango da 2. apartatuko b) eta c) betekizunak konplitzea.

5. Abizenak aldatzeko eskaera genero-indarkeriaren biktimek edo bizikidetzako familia-nukleo berean integratuta egon diren haien ondorengoen egiten badute, 2. apartatuan aurreikusitako baldintzak bete ez arren eman ahalko zaie abizenak aldatzeko baimena, erregelamendu bidez zehazten den prozedurari jarraituz.

Horrelakoetan, urgentzia- edo segurtasun-arrazoiengatik identitatea erabat aldatzeko baimena eman ahalko zaie, 2. apartatuko betekizunak konplitu beharrik gabe, erregelamendu bidez zehazten den prozedurari jarraituz».

Hamaika. Aldatu egiten da 55. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«55. artikulua. *Salbuespenezko inguruabarrak direla tarteko abizenak eta identitatea aldatzeko baimena ematea.*

Justizia Ministerioak hala agintzen badu, 54.5 artikuluan aurreikusi gabeko urgentzia- edo segurtasun-arrazoiengatik edo salbuespenezko beste inguruabar batzuegatik abizenak aldatzeko edo identitatea guztiz aldatzeko baimena eman ahalko da, erregelamenduz ezarritako moduan».

Hamabi. Aldatu egiten dira 58. artikulua izenburua eta 3. apartatua, eta honela geratzen dira idatzita:

«58. artikulua. *Ezkontzeko baimena emateko prozedura*».

«3. Ezkontzeko baimena ematen edo ukatzen duen ebazpena emanda amaituko da prozedura. Ukatzeko ebazpena eman gero, arrazoiak azaldu beharko dira, eta, kasuan-kasuan, ezkongaien gaitasunik ez izateak edo eragozpenen bat egoteak eragin badu ukapena, horren berri eman beharko da argi eta garbi».

Hamahiru. Aldatu egiten da 61. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«61. artikulua. *Banantzea, deuseztasuna eta dibortzioa inskribatzea.*

Banantzearen, deuseztasunaren edo dibortzioaren ebazpen judizial irmoa eman duen epaitegi edo auzitegi Justizia Administrazioako letraduak ebazpen horren lekukotza edo kopia elektronikoa igorriko dio Erregistro Zibilaren bulego orokorrari, egun berean edo hurrengo egun balioudunean, bitarteko elektronikoak erabiliz. Bulego horrek dagokion inskripzioa egingo du berehala. Deuseztasunari, banantzeari eta dibortzioari buruzko ebazpen judizialen idatzoharra egin ahalko da, haiek irmo bihurtu arte.

Betebehar hori izango du, halaber, banantzearen edo dibortzioaren hitzarmen arauemailea formalizatzeko eskritura publikoa eskuetsi duen notarioak.

Hasieran egindako edo hitzartutako ebazpen judizialak edo eskritura publikoak ere Erregistro Zibilean inskribatu beharko dira.

Elizako agintaritza aitortu batek ezkontza kanonikoa desegiteari buruz emandako ebazpenak ere inskribatuko dira, baldin eta ordenamendu juridikoak aurreikusten dituen baldintzak betetzen badira».

Hamalau. 68. artikuluari 3. apartatua gehitzen zaio, eta honela geratzen da idatzita:

«3. Bizilekuaren, herritartze-agiriaren edo hautuaren ondorioz Espainiako nazionalitatea eskuratzeari buruzko borondate-deklarazioak, Espainiako nazionalitatea berreskuratu, kontserbatu eta galtzeari buruzkoak eta auzotasunari buruzkoak Erregistro Zibileko arduradunaren aurrean, notarioaren aurrean edo Erregistro Zibilaren arduradun den funtzionario diplomatiko edo kontsularraren aurrean egin ahalko dira».

Hamabost. Aldatu egiten da 86. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«86. artikulua. *Errekurtsua aurkeztea eta ebazteko epea.*

1. Errekurtsua Segurtasun Juridikoaren eta Fede Publikoaren Zuzendaritza Nagusiari zuzenduko zaio, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitakoa betez aurkeztuko da.

Idazkiak eta eskabideak aurkezteko aurreikusita dauden lekuetako edozeinetan aurkeztu ahalko du interesdunak errekurtsua, ordenamendu juridikoak aurreikusten dituen bitartekoak erabiliz.

2. Zuzendaritza Nagusiak errekurtsua jartzeko idazkia jaso eta sei hilabeteko epean ebatziko du hura.

Epe hori igarota, Segurtasun Juridikoaren eta Fede Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak ez badu ebazpen espresurik eman eta jakinarazi, errekurtsua ezetsitatzeko joko da, eta dagokion jurisdikzio-bidea irekiko da».

Hamasei. Aldatu egiten da 88. artikulua 2. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«2. Prozedura izapidetzean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitakoa beteko da, erregelamendu bidez xedatutako moduan. Erregistro-prozeduretan, administrazio-isiltasuna negatiboa izango da».

Hamazazpi. Lehenengo xedapen gehigarria honela geratzen da idatzita:

«Lehenengo xedapen gehigarria. *Erregistro Zibilaren bulegoen kokapena eta hornidura.*

1. Erregistro Zibilaren bulego orokorrak udaleko erregistro zibil nagusien gaur egungo egoitzak dauden udalerrri berberetan ezarriko dira. Udaleko erregistro zibil

nagusi horiek, lege hau indarrean jartzen denean, barruti judizialeko hiriburuetako egoitzetan egongo dira.

Justizia Ministerioak Erregistro Zibilaren bulego orokorren kopurua aldatu ahalko du, dela ofizioz, alegia, ukitutako autonomia-erkidegoak txostena eman ondoren, dela ukitutako autonomia-erkidegoaren ekimenez.

2. Erregistro Zibilaren bulegoetako lanpostuak Justizia Administrazioako langileek baino ezingo dituzte bete, eta kasuan kasuko lanpostu-zerrendetan ezarritakoaren arabera antolatuko dira.

3. Bulego judizialeko unitateak antolatu eta integrazteko, Erregistro Zibilaren bulegoetarako kasuan-kasuan zer lanpostu-zerrenda eta Justizia Administrazioako zenbat langile behar diren zehaztuko da, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoan aurreikusitako prozeduraren bidez. Erregelamendu bidez hala aurreikusitako kasuetan, delako lanpostua bulego judizialeko eginkizunekin bateragarria dela xedatu ahalko da lanpostu-zerrendan».

Hemezortzi. Bigarren xedapen gehigarria honela geratzen da idatzita:

«Bigarren xedapen gehigarria. *Erregistro Zibileko arduradunen araubide juridikoa.*

1. Erregistro Zibileko arduradun lanpostuak Justizia Administrazioako letraduek beteko dituzte, erregelamendu bidez ezarritako moduan, eta han aurreikusitako betekizunak konplituz. Lanpostuak betetzeko lehiaketak Justizia Ministerioak deituko eta ebatziko ditu. Aitzitik, Bulego Zentraleko arduradun lanpostuak eta Erregistro Zibil eskusiboak zeuden udalerrietan kokatutako Bulego Orokoretako arduradun lanpostuak izendapen askeko sistema erabiliz beteko ditu Justizia Ministerioak. Izendapen askeko sistema erabiliz betetako lanpostuetan jarduteko langileak izendatzeko eta kargutik kentzeko proposamena Erregistro Zibilaren gaineko eskumen betearazleak dituzten autonomia-erkidegoek egin beharko dute, edo Justiziaren arloko eskumenak bereganatuak dituzten autonomia-erkidegoek, bulego orokorra beren lurralde-eremuan kokatuta dagoenean. Erregistro Zibilaren arduradunak Justizia Ministerioak zehaztutako prestakuntza berezia jasoko du.

2. Justizia Administrazioako Letraduen Kidegoaren parte diren pertsonak Erregistro Zibilaren arduradun-eginkizuna betetzea kidego horretan emandako zerbitzu aktibotzat joko da, eta bulego judizialean bestelako eginkizunak betetzearekin bateragarria izan daiteke baldin eta horrela aurreikusten badute erregelamendu batek eta kasuan-kasuan dagokion lanpostu-zerrendak.

3. Erregistro Zibileko arduradunak ordeztzeko araubidea erregelamendu bidez zehaztuko da.

4. Erregelamendu bidez tipifikatutakoaren arabera, diziplinazko falta izango da Segurtasun Juridikoaren eta Fede Publikoaren Zuzendaritza Nagusiaren jarraibideak, ebazpenak eta zirkularrak ez betetzea, baldin eta jarraibide, ebazpen eta zirkularrak zuzendaritza horri dagozkion erregistro zibilak gainbegiratzeko eta ikuskatzeko ahalen ondoriozkoak badira, edo beste bide bat erabiliz agerian jartzen badira».

Hemeretzi. Aldatu egiten da bosgarren xedapen gehigarria, eta honela geratzen da idatzita:

«Bosgarren xedapen gehigarria. *Erregistro Zibilaren bulego laguntzaileak eta udaletako sarbide-puntua.*

Bake-epaitegietako idazkaritzak, bake-epaitegiei zuzeneko laguntza emateko unitate prozesalak eta udalerriko justizia-bulegoak –edo, gerora egindako lege-erreformen ondorioz, udalerriko justizia-bulegoen ordezkio edo osagarri izateko ezartzen diren mota bereko beste bulego batzuk– Erregistro Zibilarekin lankidetzan

aritu dira, eta eginkizun hauek beteko dituzte, erregelamendu bidez garatutako moduan:

- a) Eskabideak, deklarazioak eta inprimakiak, baita Erregistro Zibileko prozedurak izapidetzeko beharrezkoak diren bestelako dokumentuak ere, aurrez aurre jasoko dituzte, eta elektronikoki erregistratuko.
- b) Erregistro Zibileko prozedurei buruzko informazioa emango diete herritarrei.
- c) Beren kargura dauden Erregistro Zibileko liburu fisikoetan dauden eta bitarteko elektronikoen bidez ziurtatu ezin diren erregistro-idazpenen ziurtagiriak egingo dituzte.
- d) Erregistroetan aurrez aurre eskatzen dituzten erregistro-idazpenen ziurtagiri elektronikoa egingo dituzte.
- e) Bizi-agiriak egingo dituzte.
- f) Ebazpena emateko ez baina laguntzeko diren jarduketak (erregelamendu bidez zehaztuak) egingo dituzte.
- g) Segurtasun Juridikoaren eta Fede Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak erabakitzen dituen bestelako eginkizunak beteko dituzte.

Bulego orokorrik ez dagoen udalerrietan, bulego laguntzaileak egongo dira, eta azaldutako eginkizunak beteko dituzte; horrez gain, udalek Justizia Ministerioari eskatu ahalko diote behar diren konexioak gaitzeko, erregelamendu bidez araututakoaren arabera, herritarrek Erregistro Zibilean eskabideak eta jarduketak egiteko beharrezkoa den dokumentazioa udal horietan aurkezteko aukera izan dezaten.

Erregistro Zibilaren bulego laguntzaileek ez dute berezko arduradunik izango, eta, beren eginkizunak betetzeko, beren lurralde-eremuko bulego orokorrenekin eta arduradunarekin harremanetan izango dira. Bulego laguntzaile baten lurralde-eremuko Bulego Orokorreko arduradunak bere eginkizunak eskuordetu diezazkioke bai Justizia Administrazioako kidego orokorretako kategoria handiagoa duen eta bulego laguntzailean diharduen funtzionarioari, bai toki-administrazioako funtzionarioari; azken hori udal bakoitzak izendatuko du udalerriko bulego laguntzailea arta dezan, Justizia Administrazioako funtzionarioek artatzen ez badute».

Hogei. Aldatu egiten da seigarren xedapen gehigarria, eta honela geratzen da idatzita:

«Seigarren xedapen gehigarria. *Erregistro Zibilaren bulegoetan sistema eta aplikazio informatikoak hornitzea eta bateratzea.*

Erregistro Zibilaren bulego guztietan, sistema eta aplikazio informatiko berberak erabiliko dira. Justizia Ministerioak hornituko ditu Erregistro Zibilean izapidetzen diren prozesu operatiboetan erabili beharreko aplikazioak, garapenari zein ustiapenari dagokienez.

Justizia Ministerioak eta Justizia Administrazioaren baliabide materialen gaineko eskumen betearazleak edo transferituak dituzten autonomia-erkidegoek behar diren koordinazio-mekanismoak ezarriko dituzte, zenbait zerbitzu emateko: Erregistro Zibilaren sistemetak irispidea, laguntza mikroinformatikoa, prestakuntza eta erabiltzaileen arreta».

Hogeita bat. Bigarren xedapen iragankorra honela geratzen da idatzita:

«Bigarren xedapen iragankorra. *Erregistro indibidualak.*

Justizia Ministerioak behar diren xedapenak emango ditu Erregistro Zibilaren datu-basean jasotako datu digitalizatuak arian-arian erregistro indibidualetan sartzeko.

Horretarako, erregistro indibidualetan sartuko dira 1920az geroztik udaleko erregistro zibiletan (nagusiak, delegatuak, kontsularrak eta Zentrala) egin diren

jaiotza-inskripzioak, baita 1950az geroztik udaleko erregistro zibiletan (nagusiak, delegatuak, kontsularrak eta Zentrala) egin diren ezkontza-inskripzioak, heriotza-inskripzioak, tutoretza-inskripzioak eta legezko ordezkartzen inskripzioak ere.

Justizia Ministerioak urte horien aurretik egindako inskripzioei buruzko idazpenak berreskuratuko ditu, baliabide informatikoak erabiliz, aurrekontuak ematen dituen aukeren arabera».

Hogeita bi. Hirugarren xedapen iragankorra honela geratzen da idatzita:

«Hirugarren xedapen iragankorra. *Familia-liburuak.*

Lege hau indarrean jartzen denetik aurrera, ez da familia-libururik egingo.

Lege hau indarrean jarri aurretik egindako familia-liburuek 1957ko ekainaren 8ko Erregistro Zibilaren Legearen 8. eta 75. artikuluetan aurreikusitako ondorioak izango dituzte aurrerantzean ere».

Hogeita hiru. Laugarren xedapen iragankorra honela geratzen da idatzita:

«Laugarren xedapen iragankorra. *Idazpenak.*

Justizia Ministerioak lege honetan aurreikusitakoari jarraituz Erregistro Zibilak soil-soilik bitarteko elektronikoz funtzionatzeko aukera emango duten aplikazio informatikoak abian jartzea onesten duen arte –horretarako ebazpena Segurtasun Juridikoaren eta Fede Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak eman beharko du–, Erregistro Zibilaren bulegoetako arduradunek 1957ko ekainaren 8ko Legeak arautzen dituen liburu eta ataletan egingo dituzte jaiotzei, ezkontzei, heriotzei, tutoretzei eta legezko ordezkartzei buruzko idazpenak. Horrelakoetan, ez da aplikatuko lege honek kode pertsonalari buruz aurreikusten duena.

Azaldutako idazpenak egiteko, uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 2.2 artikuluan aurreikusitakoa betez –1957ko ekainaren 8ko Erregistro Zibilaren Legearen 10.etik 22.era bitarteko artikuluei lotuta–, lege hau indarrean jarri arte erregistro zibiletako arduradun, arduradun eskuordetu, Justizia Administrazioako letradu eta Justizia Administrazioako kidego orokorretako funtzionario jardun duten pertsonak Erregistro Zibileko zereginak eta eginkizunak betetzen jarraituko dute, eta, halaber, Mugape eta Planta Judizialaren abenduaren 28ko 38/1988 Legearen 27. artikulua aplikatzen jarraituko da.

Aplikazio informatikoak abian jarri bitartean, gaur egunera arte aurreko paragrafoan azaldutakoa betez prozedurak izapidetzeko, publikitatea egiteko eta idazpenak egiteko eskudun izan diren Erregistro Zibilaren bulegoek edukiko dute horien gaineko eskumena; 1957ko ekainaren 8ko Erregistro Zibilaren Legeak 15., 16., 17., 18. eta 19. artikuluetan aitortzen zien eskumen hori aipatutako bulegoei, eta aurrerantzean ere artikulua horietan jasotako arauak aplikatuko dira behin-behinean, aipatutako ondorioetarako bakarrik.

Aplikazio informatikoak azkarrago eta errazago indarrean jartzeko eta datu digitalizatuak erregistro indibidualetan azkarrago sartzeko, Justizia Ministerioak, justizia-arloan eskudun diren autonomia-erkidegoen laguntzarekin, proiektu egokiak garatuko eta aurkeztuko ditu Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren barruan, lege honen bigarren xedapen iragankorrean xedatutakoaren arabera.

Gobernuak, Justizia Ministerioaren bitartez, Erregistro Zibilaren eredu berria ezartzeko prozesuaren berri emango die Gorte Nagusiei, aldian-aldian».

Hogeita lau. Aldatu egiten da bosgarren xedapen iragankorraren 2. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«2. Ziurtagirien formatuak eta ereduak egokitu egingo dira, hizkuntza ofizialak erabiltzeko bidea emateko».

Hogeita bost. Zortzigarren xedapen iragankorra honela geratzen da idatzita:

«Zortzigarren xedapen iragankorra. Erregistro Zibilaren bulegoak sortzea. Arduradunak eta Justizia Administrazioko letraduen araubide iragankorra. Erregistro Zibilean lanpostua duten Justizia Administrazioko langileek beren lanpostuetan jarraitzea.

1. Laugarren xedapen iragankorraren babesean emandako ebazpenek hala ezartzen duten kasuetan, Erregistro Zibilak soil-soilik bitarteko elektronikoz funtzionatzeko bidea emango duten aplikazio informatikoak abian jartzen diren unean, gaur egunera arte Erregistro Zibil eskusiboen eta Erregistro Zibil Zentralaren eginkizunak bete izan dituzten epaitegiak bertan behera utziko dira, eta, haien ordez, Erregistro Zibilaren bulego orokorrak eta Erregistro Zibilaren Bulego Zentrala eratuko dira.

Barruti judizial bateko hiriburuko egoitza diren gainerako udalerrietan, aurreko paragrafoan adierazi bezala aplikazio informatikoak indarrean jartzen direnean, gaur egunera arte Erregistro Zibilaren eginkizunak bete izan dituzten lehen auzialdiko epaitegiek edo lehen auzialdiko eta instrukzioko epaitegiek eginkizun horiek betetzen jarraituko dute, Erregistro Zibilaren bulego orokor gisa.

2. Lege honetan aurreikusitakoaren arabera Erregistro Zibilak soil-soilik bitarteko elektronikoz funtzionatzeko bidea emango duten aplikazio informatikoak abian jartzen diren unean, Erregistro Zibileko arduradun-eginkizunak betetzen hasiko dira, batetik, Erregistro Zibil Zentralean edo Erregistro Zibil eskusiboetan diharduten eta erregistro horiek behin betiko destitotzat dituzten Justizia Administrazioko letraduak, eta, bestetik, lehen auzialdiko epaitegietan edo lehen auzialdiko eta instrukzioko epaitegietan Erregistro Zibileko eginkizunak esleituta dituzten letraduak. Eginkizun horiez gain, lege hau indarrean jartzen den unean Erregistro Zibila atxikita dagoen bulego judizialaren Justizia Administrazioko letradu-eginkizunak beteko dituzte. Kasuan kasuko lanpostu-zerrendetan zehaztutako ordainsariak jasoko dituzte, betetzen dituzten eginkizunen arabera.

3. Lege honetan aurreikusitakoaren arabera Erregistro Zibilak soil-soilik bitarteko elektronikoz funtzionatzeko bidea emango duten aplikazio informatikoak abian jartzen diren unean, Erregistro Zibileko beren eginkizunak betetzen jarraituko dute, batetik, Erregistro Zibil Zentralean edo Erregistro Zibil eskusiboetan diharduten eta erregistro horiek behin betiko destitotzat dituzten Justizia Administrazioko letraduek, eta, bestetik, Erregistro Zibilera atxikitako bulego judizialean erregistro-eginkizunak esleituta dituzten letraduek. Eginkizun horiez gain, Erregistro Zibila atxikita dagoen bulego judizialean –Justizia Administrazioaren barruan– dituzten eginkizunak beteko dituzte (halakorik betetzen badute), eta orain arteko ordainsari berak ordainduko zaizkie.

4. Erregistro Zibilaren eremuan ezarri beharreko egiturak eta lanpostu-zerrendak ezarri arte, gaur egungo destino-zentroei eutsiko zaie, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoak aurreikusitakoarekin bat. Justizia Administrazioko funtzionarioen kasuan, lege honen arabera ezartzen diren Erregistro Zibilaren bulego berriak destino-zentrotzat hartuko dira.

Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoak 521. artikuluan «Erregistro Zibila» aipatzen duenean, aipamenok lege honetan aurreikusitakoaren arabera Estatuko lurraldean ezarriko diren Erregistro Zibilaren bulego orokorrei, Bulego Zentralari eta bulego laguntzaileei buruzkoak direla joko da.

5. Erregistro Zibilaren bulego berriak sortzeko lanpostu-zerrendak prestatzean eta funtzionarioak egokitzeko prozesuak burutzean, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoan eta hura garatzeko araudian bulego judizialak ezartzeari buruz aurreikusten dena beteko da».

Hogeita sei. Hamargarren xedapen iragankorra honela geratzen da idatzita:

«Hamargarren xedapen iragankorra. *Erregistro Zibil eskusiboetako eta Erregistro Zibil Zentraleko arduradun diren epaileen destinoa.*

1. Lege honetan aurreikusitakoaren arabera Erregistro Zibilak soil-soilik bitarteko elektronikoz funtzionatzeko bidea emango duten aplikazio informatikoak abian jartzen diren unean, Erregistro Zibil eskusiboetako edo Erregistro Zibil Zentraleko arduradun diharduten eta erregistro horiek behin betiko destinatutzat dituzten epaile eta magistratuek Karrera Judizialean zerbitzu berezietara igarota eginkizun horiek betetzen jarraitzea erabaki ahalko dute, baldin eta lanpostua 2011ko uztailaren 22a baino lehen eskuratu bazuten, hau da, lege hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu baino lehen. Desagertuko diren lanpostutzat joko dira, baina zerbitzu berezietako egoerara igaro aurreko ordainsariei eutsiko zaie behin-behinean, eta lanpostu horietan diharduten langileek kargua uzten dutenean, amortizatu egingo dira. Aipatutako eginkizunak betetzen jarraitu nahi ez duten edo jarraitu ezin duten epaileak xedapen honen azken apartatuetan aurreikusten den egoeran geratuko dira.

2. Ebatzi gabe dauden jurisdikzio-auziak lehen auzialdiko epaitegien eta lehen auzialdiko eta instrukzioko epaitegien artean banatuko dira, kasuan-kasuan zer dagokion.

3. Erregistro Zibileko arduradun izateagatik epaileei eta magistratuei esleitzen zaizkien jurisdikzio-eskumenak lehen auzialdiko epaitegien edo lehen auzialdiko eta instrukzioko epaitegien esku geratuko dira, lege prozesalean ezarritako eskumen-legeen arabera.

4. Erregistro Zibil eskusiboetako arduradun diren epaileek lege honetan xedatutakoaren arabera arduradun izateari uzten badiote, kasuan-kasuan dagokion Justizia Auzitegi Nagusiko presidentearen esanetara jarriko dira behin-behinean, eta ez zaizkie ordainsariak murriztuko. Egoera horretan dauden bitartean, gobernu-salek zehaztutako lanpostuetan emango dituzte zerbitzuak, eta destinatutzat duten Erregistro Zibilean ez beste nonbait eman badute zerbitzua, emandako zerbitzuaren arabera izango dira kalte-ordainak, Botere Judizialaren Lege Organikoan xedatutakoarekin bat. Epaile horiek nahi duten lekuko eta ordenako epaitegia edo auzitegia aukeratuko dute, eta hautatu duten organoan sortzen den lehenengo lanpostu hutsa beteko dute, non eta ez den presidente-postu bat, aukerako izendapeneko postu bat edo hautaketa-probetatik datozen magistratuei legez erreserbatutako postu bat, salbu eta delako epailea aipatutako egoeretako batean badago eta, horrez gain, lanpostu horiek eskuratu ahal izateko Botere Judizialaren Lege Organikoaren ezarritako gainerako baldintza objektiboak konplitzen baditu.

5. Lege honen arabera Erregistro Zibil Zentraleko arduradun izateari uzten dioten pertsonak Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiko presidenteei atxikita eta haren esanetara geratuko dira. Egoera horretan dauden bitartean, gobernu-salek zehaztutako lanpostuetan emango dituzte zerbitzuak, eta Madrilgo Probintzia Auzitegiko edozein atal zibiletan sortzen den lehenengo lanpostu hutsa beteko dute, presidenteak erabakitakoaren arabera, non eta ez den presidente-postu bat, hautaketa-probetatik datozen magistratuei legez erreserbatutako postu bat edo espezialistek lehentasunez eskuratu dezaketen edo espezialistek erreserbatuta dagoen postu bat.

6. Azaldutakoa gorabehera, ukitutako epaileak eta magistratuak Erregistro Zibileko arduradun izateari utzi eta gehienez ere bi urte igaro arte egon daitezke justizia-azitegi nagusietako presidentetzei behin-behinean atxikita, interesdunak hala eskatzen badu».

Hogeita zazpi. Hamaikagarren xedapen iragankorra gehitzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«Hamaikagarren xedapen iragankorra. *Izapidetzen ari diren espedienteetan ebazpen judizialak aipatzea.*

Erregistro Zibilaren 1957ko ekainaren 8ko Legean eta Erregistro Zibilaren Legearen Erregelamendua onartzen duen 1958ko azaroaren 14ko Dekretuan xedatutakoari jarraituz Erregistro Zibilean izapidetzen ari diren espedienteetan emandako autoak eta probidentziak beste arau batzuetan aipatzen direnean, aipamenok Erregistro Zibileko arduradunaren ebazpenei buruzkoak direla joko da».

Hogeita zortzi. Xedapen indargabetzailea honela geratzen da idatzita:

«Xedapen indargabetzailea. *Erregistro Zibilaren 1957ko ekainaren 8ko Legea, Mugape eta Planta Judizialaren abenduaren 28ko 38/1988 Legea eta Kode Zibila.*

Indargabeturik geratzen dira lege honetan xedatutakoaren aurkakoak diren arau guztiak, eta, bereziki, hauek:

1.a Erregistro Zibilaren 1957ko ekainaren 8ko Legea, hirugarren, laugarren eta bosgarren xedapen iragankorretan xedatutakoa izan ezik.

2.a Mugape eta Planta Judizialaren abenduaren 28ko 38/1988 Legearen 27.1 eta 27.2 artikulak, laugarren xedapen iragankorrean xedatutakoa izan ezik.

3.a Kode Zibilaren 325.etik 332.era bitarteko artikulak».

Hogeita bederatzia. Azken xedapenetako lehena honela geratzen da idatzita:

«Azken xedapenetako lehena. *Ordezko zuzenbidea.*

Lege honetan araututako prozeduren izapidetze administratiboari buruz aurreikusi ez diren alderdiei Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea aplikatuko zaie».

Hogeita hamar. Aldatu egiten da azken xedapenetako bigarrenaren 2. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«2. Arau batean ezkontza zibila baimentzeko eskuduna den epailea edo alkatea edo epailearen edo alkatearen ordez diharduen funtzionarioa aipatzen denean, aipamenok notarioari, Erregistro Zibilaren arduradunari edo Erregistro Zibilaz arduratzen den funtzionario diplomatiko edo kontsularrari buruzkoak direla joko da, baldin eta pertsona horren zeregina gaitasun-betekizunak betetzen direla eta eragozpenik ez dagoela edo zeuden eragozpenei aurre egin zaiela egiaztatzea bada. Pertsona horren zeregina ezkontza zibiletan egotea bada, berriz, aipamenok bake-epaileari, alkateari edo alkatearen eskuordetza duen zinegotziari, Erregistro Zibileko arduradunari, notarioari edo Erregistro Zibilaz arduratzen den funtzionario diplomatiko edo kontsularrari buruzkoak direla joko da».

Hogeita hamaika. Azken xedapenetako zazpigarrena honela geratzen da idatzita:

«Azken xedapenetako zazpigarrena. *Autonomia-erkidegoen eskumenak Erregistro Zibilaren arloan.*

Autonomia-erkidegoek eremu horretan parte hartuko dute, Erregistro Zibilaren arloan eskumen betearazleak egikaritzuz, baita Justizia Administrazioaren baliabide materialen eta giza baliabideen arloan hartutako eskumenen ondoriozkoak ere; horretarako, autonomia-estatutuei, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoari eta lege honi erreparatuko diete, baita gainerako xedapen arauemaileei ere».

Hogeita hamabi. Azken xedapenetako zortzigarrena honela geratzen da idatzita:

«Azken xedapenetako zortzigarrena. *Eskumen-titulua.*

Lege hau Espainiako Konstituzioaren 149.1.5 eta 149.1.8 artikuluen babesean ematen da. Azken xedapenetako laugarrena salbuespena da, Espainiako Konstituzioaren 149.1.6 artikuluan oinarritzen da eta; artikuluko horrek legeria prozesala emateko eskumen eskusiboa esleitzen dio Estatuari».

Xedapen gehigarri bakarra. *Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legean Elizaren Ondasun Higigarrien Inbentarioari dagokionez ezarritako epea aldatzea.*

Bost urtez luzatzen da Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legean xedapen hauei dagokionez ezarritako epea: Elizaren Ondasun Higigarrien Inbentarioa; Aparteko interes publikoko gertaeren tasak eta zerga-onurak aldatzeko abenduaren 29ko 4/2004 Legearen bigarren xedapen gehigarria; Zerga, Administrazio eta Gizarte Arloko Neurrien abenduaren 30eko 42/1994 Legearen lehenengo xedapen iragankorra, eta ekainaren 25eko 16/1985 Legearen beraren bosgarren xedapen iragankorra.

Azken xedapenetako lehena. *Eskumen-titulua.*

Lege hau Espainiako Konstituzioaren 149.1.5 eta 149.1.8 artikuluen babesean ematen da; artikuluko horiek erregistroak eta agerkari publikoak antolatzeko eskumen eskusiboa esleitzen diote Estatuari.

Azken xedapenetako bigarrena. *Indarrean jartzea.*

Lege hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Horrenbestez,
Lege hau bete eta betearaz dezatela agintzen diet espainiar guztiei, partikularrei zein agintariei.

Madriren, 2021eko apirilaren 28an.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN